Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3400

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 23koa, Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordearena. Honen bidez jakinarazten da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzak 2010eko ekitaldian jasoko dituzten entitate onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, EAEko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean betebehar da publizitatearen printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, EAEko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriaz, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2010eko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea (eranskina). Agindu horren bidez, EAEko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 23a.

Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordea,
PEDRO GÓMEZ DAMBORENEA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3400

RESOLUCIÓN de 23 de mayo de 2011, del Viceconsejero de Gabinete, Planificación y Estrategia, por la que se hace pública la relación de entidades beneficiarias, en el ejercicio 2010, de las ayudas desarrolladas en la Orden de 28 de noviembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los Clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Al objeto de dar cumplimiento al principio de publicidad que ha de presidir la actividad subvencional y respecto a las ayudas otorgadas al amparo de lo dispuesto en al Orden de 28 de noviembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los Clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y habiéndose notificado cada una de ellas de forma individualizada a la entidad interesada, se procede mediante esta Resolución a la publicación de la relación de entidades beneficiarias en el Boletín Oficial del País Vasco.

Así, de conformidad con lo señalado en el párrafo anterior,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar la relación de entidades beneficiarias en el ejercicio 2010, de las ayudas desarrolladas en la Orden de 28 de noviembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los Clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, según figuran en el anexo adjunto.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de mayo de 2011.

El Viceconsejero de Gabinete, Planificación y Estrategia,
PEDRO GÓMEZ DAMBORENEA.

ERANSKINA / ANEXO

Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria	Diru-kopurua
«ACEDE» Etxetresna Elektrikoen Euskadiko Kluster Taldea *Agrupación Cluster de Electrodomésticos de Euskadi, A.I.E «ACEDE»*	198.786,98 €
«ACICAE» Automobilgintzaren Euskadiko Klusterra *Cluster de Automoción de Euskadi «ACICAE»*	240.404,84 €
«Aclima» Ingurumeneko Industrien Euskadiko Kluster Elkartea *Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente de Euskadi «Aclima»*	224.895,22 €
Asociación Española de Fabricantes de Máquinas-Herramienta «AFM»	240.404,84 €
«Eiken» Ikus-entzunezkoen Euskadiko Kluster Elkartea *Asociación Cluster Audiovisual de Euskadi «Eiken»*	123.268,08 €
Energiaren Kluster Elkartea *Asociación Cluster de Energía*	240.404,84 €
"Euskal Herriko Itsas Foroa" Euskal Herriko Itsas Industria Sustatzeko Elkartea *Asociación para la Promoción de la Industria Marítima Vasca «Foro Marítimo Vasco»*	240.404,84 €
«Gaia» EAEko Teknologia Elektroniko eta Informazio Teknologien Industrien Elkartea *Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco «Gaia»*	240.404,84 €
Euskadiko Aeronautikako eta Espazioko Kluster Elkartea *Asociación Cluster de Aeronáutica y Espacio del País Vasco «Hegan»*	238.748,49 €
«Paperaren Klusterra» Paperaren Euskadiko Kluster Taldea Asociación Cluster del Papel de Euskadi «Cluster del Papel»	115.103,06 €
Unipor Bilbao Elkartea Uniport Bilbao / Comunidad Portuaria	220.000,00 €
Guztira / *Total*	2.322.826,03 €